

3. FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure bezeroei eskaini nahi diogun balio proposamena aurrera eramateko, zenbait jarduera beharrezkoak dira produktua merkatura iritsi aurretik pentsatzeko. Hau da, hemen pentsatzen dugu zer egingo dugun gure egunerokoan.

Gure Ibiltzen enpresan, bi jarduera zehatz eskainiko ditugu, alde batetik bitartekari lana eta bestetik produktuen salmenta.

Hau aurrera eramateko, baliabide batzuk beharko ditugu, adibidez, denda fisikoa, langileak, auxiliarrak, saltzeko produktuak... Jarraian, bezeroen arloa zehaztea beharrezkoa da, bertan, bezeroekin harremanak hainbat modutan eskainiko ditugularik, lehenengoa, asistentzia pertsonala, hau da, familiarrekin hitz egiteko aukera eskainiko dugu, banakako esku-hartze izenez ezagutzen delarik. Bigarrenkoa, telefono deiak ere izango ditugu eta azkenekoa, web orri bat ere izango dugu, bertan ditugun produktu guztiak edukiko ditu ikusgai.

